

» DISKOA

Etorriko zenaren iragarle aberatsa



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Xabier Montoiaren burutazioa izan zen (ordu-ko) gazteek Mikel Laboak idatzitako kanten bertsioak egitea. IZk eta Elkarrek kaleratu zuten, Seaskarekin, eta dirua Iparraldeko Ikastolentzat bideratu zen. Iaz Elkarrek eta Seaskak berrargitaratu zuten, baina tamalez ia oharkabean pasa zen. Lan hau izan zen Laboak belaunaldien artean egindako zubi-lanari erreparatu zion lehena eta rockaren eremutik aitortza eta eskertza eman ziona bizirik zela.


Lan honek irudikatzen du 90eko hamarkadaren etorrerak Euskal Herriko musika eszenara ekarri zuen aldaketa sakona, mugarririk. Estiloen abanikoa erabat zabaldu eta suntsizetik eraikitzena pasa zen. Adibide oso esanguratsua da Negu Gorriak-en agerpena disko honetan eman izana. *Txerokee*-n estreinatu zen taldea *Gaberako aterpea* biografikoarekin eta lehenengo hip-hop-a euskaraz entzun ahal izan genuen. Baita zeresana ematen hasi edo ematekoak ziren beste hamar proiektu interesgarri ere: Su Ta Gar-en *Jaiotze basatia* labetik atera aurretik bero hartu zuen publikoak euskal tematika (*Haika mutil*) heavy eta speed-rockaren muga txertatu izana. M-ak taldeak, rocka eta funkya batzen aitzindariak, erreboluzioak geldotu eta erdi tenpora

Txerokee. Mikel Laboaren kantak

ASKOREN ARTEAN

Elkar / Seaska, 1990

Negu Gorriak taldea
"Txerokee"-n, lehen aldikoz
disko batean.



eraman zuen *Zaude lasai*. Mutrikuko Delirium Tremens itsasotik urrundu eta *Baztan*-eko patxada rockarekin bizkortu zuen. Bukolikotik eta askatasunetik oraindik ere edaten duen Pottokak gitarra zorroztu zion *Iturengo arotza*-ri. Tapia eta Leturiak, *Public Enemy*ren txapela jantzi bezperan, zantzuak erakutsi zituzten *Lekeitioruntz*-en triki, vals, tango eta erokeriaren mix-a eginez. Bap! taldeak *Gogo eta gorpuzaren zilbor hesteak* eman zituen euskal musika, erritmo dantza, tronpeta eta trikia jazz

eta hardcorearen batutapean gozatzeko. Ederra! Herrikide zen Karkaxak ere hardcorea eta Laboaren ikuskera hurbildu zituen *Haika mutil*-en bitartez. Zarauzko Kiowakek *Baga biga higa* korapilatsua rock-saxo-and-roll irabiagailutik pasa zuen. Bukaera talde tolosarrak distortsioz jositako rock oso makurra landu zuen *Ama hil zaigu* piezari zentzu handiagoa emanez. Eta Angel G. Katarain soinu ingeniari eta ekoizle ezagunak garaian elektronikarekin jolastuz *Txoria txori* eta entzuleak hegan jarri zituen. ■